IKASKIDE PROIEKTUA - III. MINTEGIA

-IRAKASLEAREN ESKU-HARTZEA-

LANERAKO PROZEDURA

Talde txikiak egin eta partaideak irakasle edota talde dinamizatzaile roletan jarri honako galdera hauei erantzuteko. Ondoren, talde handian partitu egindako lana.

1.- Ikasleekin izan ditugun esku-hartze arazoak. Gustura geratu ez garen egoerak. 3-4 hitz egoera deskribatzeko (banakako lana; 5 minutu)

2.- Zein(tzuk) izan da esku-hartzea ondo Joan ez denaren pista eman diguna? (banakako lana; 5 minutu)

3.- Adierazle horiek zein sentsazio eragin dizute? (amorrua, etsipena, norabide eza...) (banakako lana; 5 minutu)

4.- Batak besteari egoera deskribatu.

5.- Egoera guztien artean bat aukeratu (gehienak identifikatuta senti daitezkeena)

6.- Arazoa ahalik eta gehien zehaztu (taldeka ala banaka ari direnean ...)

7.- Zeintzuk izan daiteke arazo horren kausak? Post-itak erabiliko ditugu. Post-it bakoitzean ideia bana idatzi. Isikawaren arrain-hezurra osatu.



8.- Hau ikusita, zeintzuk dira nik ateratzen ditudan ondorioak?

9.- Zeri heldu lehenengo? Zeri ondoren? Irakasleon esku-hartzea hobetze aldera, Lehentasunak markatzeko tresna posible bat.

		KONTROLA	
		ZUZENA	ZEHARKAKOA
INPAKTOA	HANDIA	1	2
	TXIKIA	3	4

10.- Errazenetik hasita (edo egokien ikusten duzuen multzotik), irtenbideak bilatzen hasi.